

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak

Ebazpena: R 6/2009

Espedientea: 6/2008

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 3an

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente zuelarik, eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador batzordekide, honako hau

ERABAKI DU

1997ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoretarako Izen-abizenak jaunari (IFZ: ZZZZZZZZ-R) zegokion zerga-egoitza zehaztea zela-eta sortutako eskumen-gatazkaren inguruan, planteatua berau Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurka eta Arbitraje Batzorde honek 6/2008 espediente-zenbakiarekin izapidetua.

I.- AURREKARIAK

1. Aztergai dugun eskumen-gatazka 2008ko martxoaren 14an sartu zen Arbitraje Batzordearen erregistroan, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzako foru-diputatuak sinatutarik honako hau adierazten zuen idazki baten bidez: "honekin batera aurkezten dira, halaber, Bizkaiko Foru Ogasunak Batzordea eratu aurrean planteatutako gatazken espedienteak", horien artean orain dagokiguna zegoelarik.

2. Estatuko Zerga Administrazioko Agentziak (EZAA) EAEn duen 1. zk.ko Ikuskaritza Ataleko buruaren erabakiz ikuskapen-jarduketei ekin zitzaient, eta horren jakinarazpena jaso zuen 2002ko ekainaren 7an ABIZENA jaunak (zergaduna aurrerantzean). Jakinarazpenean ohartarazten zitzaionez, zerga-ikuskaritzak egiaztatuko zuen zein zen haren zerga-egoera 1997ko zergaldiko PFEZri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

zegokionez. Otsailaren 4ko 136/2000 Errege Dekretuak eman zion idazketaren arabera, Zerga Ikuskaritzari buruzko Erregelamendu Orokorrak, apirilaren 25eko 939/1986 Errege Dekretuaz onartuak, zehazten du 11.2 artikuluan ikuskapen-jarduketak izaera orokorrekoak izango direla, beren-beregi adierazten zitzaion bezala.

3. Zergadunak autolikidazioa aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Ogasunean, 1997an ohiko bizilekua Bizkaiko udalerrian izanik uste baitzuen lurralde historiko horretan ordaindu behar zituela zergak. Lehendik ere, 1998ko irailaren 11n, Bizkaiko Foru Ogasunak eskatu zion, errekerimendu batez, lan-etekinen gaineko atxikipenen ziurtagiria aurkez zezala, aitortutako sarrerak ez zetozelako bat Administrazio horrek zeuzkan datuekin.

4. Foru Ogasunak bere alegazioetan adierazten duenez –geroago jardungo gara haietaz, gertaeren azalpen kronologikoa ez haustearren–, EZA Ak ikuskapen-jarduketei ekin zien zergadunari buruzko “informazio garrantzitsuko fitxa” bat, 2002ko ekainaren 2koa, jaso zuenean, EZA Ak berak Gaztela eta Leonen duen Ordezkaritza Bereziko 09 zk.ko Eskualde Ikuskaritzako buruak helarazia. Informazio-fitxan, IZENA kirol-klubari buruzko ikuskapen-jarduketen ondorio, zergadunak kobratu baina aitortu ez zituen ordainsarien berri ematen zen. 2002ko ekainaren 6an Euskadiko Eskualde Ikuskaritzako buruak ABIZENA jaunaren zerga-egoitzari informazioa eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiko Ikuskaritzako Plangintza eta Azterlan Zerbitzuko buruari. Horrek ekainaren 21ean bidalitako eta EZA An 2002ko uztailaren 7an jasotako erantzunaren arabera, zerga-egoitzatzat jotzen zen zergadunak adierazitakoa, Bizkaiko ____ udalerriko ____ helbidea, alegia. Datu horietatik ondorioztatzen denez, EZA Ak ikuskapen-jarduketen hasiera jakinarazi zuenean ez zitzaion oraindik iritsi Bizkaiak zergadunaren zerga-egoitzari buruz emandako erantzuna (ikus aurrekarietako 2. puntua).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

5. Behin ikuskapen-prozedura hasita, eta haren harira egindako urratsei erreparatu gabe (ohartu behar bada ere, ordea, zergaduna EZAAn bertaratu zela ekainaren 28an eta uztailaren 9an eta 18an eta Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztutako likidazioa entregatu zuela, adieraziz haren iritziz Estatuko Agentzia ez zela eskuduna, nahiz eta azken datu hori agertu ez egitateen jasotze-eginbidean), 2003ko martxoaren 4ko idazki batez zergadunak EZAAk egindako jarduketan berri eman zion Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza zuzendariari; adierazten zuen, zehazki, 1997an haren emaztea eta seme-alabak Bizkaian bizi zirela, honako hau gaineratuz: “ogibidez IZENA kirol-klubeko entrenatzailea izan arren –1996ko abenduaren 12tik lanetik egotzi zuten arte, 1997ko urriaren 21ean– ekitaldiko 183 egun baino gehiago eman nituen nire Bizkaiko ohiko bizilekuan”. Horiek horrela, eta maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak, Ekonomia Itunari buruzkoak, 39. artikuluan ezarritakoari helduz, eskatzen zuen Arbitraje Batzordeak ebatz zezala Administrazioen arteko gatazka.

6. 2003ko apirilaren 8ko idazki batez (EZAAn hilaren 15ean sartua), Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Zuzenen administratzaileak eskatu zion EZAAren EAEko Ordezkaritza Bereziko Eskualde Ordezkaritzari “inhibitu” egin zedila zergadunari irekitako “egiaztapen-espedientearen kasuan”, horren alde aipatuz Ekonomia Itunari buruzko 12/1981 Legearen 7. artikulua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko PFEZri buruzko 7/1991 Foru Arauaren 11. eta 12.a, horien arabera zergadunaren aitortpena “likidatzeko” eskumena Bizkaiko Foru Ogasunari dagokiolako, interesdunak urte naturaleko 183 egunetik gora eman baitzituen Bizkaiko lurraldean, eta horrenbestez, ohiko bizilekua bertan zeukan pertsona fisiko bat zen.

7. Zerga Zuzenen administratzaileari bidalitako 2003ko maiatzaren 12ko idazki batez (irteera-data maiatzaren 14koa), EZAAren Ordezkaritza Bereziaren EAEko Eskualde-ikuskariak uko egiten zion inhibitze-eskaerari, horretarako oinarri nagusitzat ikuskapen-prozedurako egitateen jasotze-eginbidea, 2002ko ekainaren 28koa, aipatuz, agiri horretan zergadunak adierazi baitzuen “1997ko ekitaldian bizileku

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak

partikularra Gaztela eta Leongo hirian izan zuela, urteko urrira edo azarora bitartean...”.

8. 2003ko maiatzaren 21ean EZAk 1997ko PFEZa erregularizatzeko proposamena helarazi zion zergadunaren ordezkariari. Maiatzaren 30ean aurkeztutako idazki batez ordezkariak eskumengabetzat jotzen zuen Estatuko Administrazioa, eta 6. puntuan aipatutako inhibitze-eskarian oinarriturik ikuskapen-jarduketak eteteko galdegiten zuen.

9. 2003ko ekainaren 2an egindako desadostasun-aktan, A02-ZZZZZZZZ zk.dunean, _____ko zenbatekoa (kuota gehi interesak) zehazten zen, higigarrien kapitalaren eta lan pertsonalaren ondoriozko sarrera eta etekin ez aitortuengatik, eta 2003ko uztailaren 16an likidazio-ebazpenaren berri eman zitzaion zergadunaren ordezkariari.

10. 2003ko uztailaren 30ean zergadunak berrezartze-errekurtsoa ezarri zuen EZAren Euskadiko Ordezkaritza Bereziko Eskualde-ikuskaritzako buruak emandako likidazio-ebazpenaren aurka, eta urte bereko abuztuaren 18ko idazki batez, aurkaratutako egintzaren etetea eskatu zuen.

11. Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeari helarazitako 2003ko uztailaren 30eko idazki batez (irteera-data abuztuaren 4koa) Bizkaiko Foru Ogasuneko idazkari tekniko nagusiak eskumen-gatazka planteatu zuen, horretarako Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legeak, maiatzaren 23koak, 66.Bat.b) artikuluan ezarritakoari helduz –ez zen aipatu edo alegatzen arau beraren c) letra–. Idazkiaren bidez eskatzen zen hasitzat jo zedila eskumen-gatazka konpontzeko prozedura eta sortutakotzat maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 66.Bi artikuluko ondorioak (preskripzioaren geldiarazpena eta hortik aurrera inolako egintzarik ez egitea), eta horrekin bat gogorarazten zen 2003ko maiatzean EZAk ez zuela Bizkaiko Foru Ogasunaren inhibitze-eskaria onartu, bere burua eskuduntzat jotzen baitzuen (ikus 7.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak

aurrekaria). Eskumen-gatazka planteatuta zegoela jakinarazi zitzaien EAEko Zerga Kidekaketarako Saileko presidenteari eta EZAAREN EAEko Ordezkaritza Bereziko Eskualde-ikuskaritzako buruari (sarrera-data, abuztuaren 8koa bigarren kasuan), eta Ikuskaritzako buruari dagokionez, gogoratu zitzaion, bestalde, Ekonomia Itunaren 66. artikuluko 2. zenbakiari jarraituz “hortik aurrera zerga-administrazio horrek ez duela inongo jarduketarik egingo”.

12. Inhibizio-eskaera egin zitzaion arren, 2003ko azaroaren 18ko erabakiz EAEko Eskualde-ikuskaritzako buruak ezetsi egin zuen likidazio-egintza administratiboaren aurkako berrezartze-errekurtsoa, eta ez zuen onartu likidazioaren etetea, zergadunak eskatuz bestela.

13. 2003ko azaroaren 20an zergadunak erreklamazio ekonomiko-administratiboa ezarri zuen berrezartze-errekurtsoaren ezespenebazpenen aurka, horien bidez baietsi egiten baitzen egintza administratiboa, eta etetea ukatu. Ez ditugu hemen aztertuko erreklamazioaren inguruko gorabehera prozesalak, ez diote-eta auziaren muiari eragiten.

14. 2003ko azaroaren 26an (jakinarazpen-data abenduaren 16koa) EZAAREN EAEko Ordezkaritza Bereziko Zerga Bilketarako Eskualde Atalak premiamendu-probidentzia eman zuen, eta urte bereko abenduaren 23an erreklamazio ekonomiko-administratiboa ezarri zen probidentziaren aurka. 2006ko otsailaren 27ko Ebazpenez, Euskadiko AEAK (Euskadiko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa) deuseztatu egin zuen premiamendu-probidentzia.

15. 2004ko otsailaren 5ean Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeak 44. artikuluan aurreikusten duenari helduz, jarduketak eteteko errekerimendua helarazi zion EZAAREN Euskadiko ordezkari bereziari.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

16. Azken aurrekarian aipatutako prozedura-legeak aurreikusten duen hilabeteko epea igarota, 2004ko martxoaren 11n Bizkaiko Foru Aldundiak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (ZZZ/04 zenbakiarekin erregistratua) ezarri zuen A02-ZZZZZZZZ desadostasun-akta abiarazi zuten ikuskapen-jarduketan aurka, prozedura zehaztu gabeko zenbatekotzat jotz eta alderdi demandatutzat EAEko EZAA aurkeztuz.

17. 2005eko maiatzaren 23ko Erabakiz, Euskadiko AEA-k ezetsi egin zuen desadostasun-aktaren arabeko likidazioaren betearazpena eteteko eskaera, pieza bananduan izapidetua berau; AEAREN erabakitik ondorioztatzekoa da ezespeneren argudiotzat ez zirela betetzen –edo ez zirela antzematen– Erreklamazio Ekonomiko-administratiboan Prozeduraren Erregelamenduak aurreikusten dituen arrazoiak (martxoaren 1eko 391/1996 Errege Dekretuak onartutako Erregelamendu hau indarrean dago hala ezarri zuelako Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak Bosgarren Xedapen Iragankorrean), zehazki zergadunak ez zituelako beharrezko bermeak aurkeztu hala eskatu zitzaion arren. 2005eko uztailaren 21ean zergadunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri zuen betearazpenaren etetea ukatzen zuen AEAREN Erabakiaren aurka, zerga-zorra _____ euroan zenbatetsiz.

18. 2006ko otsailaren 27ko Erabakiz, Euskadiko AEAK ez zuen onartu zergadunaren erreklamazio ekonomiko-administratiboa, ezarritakoa berau ezetsita geratu zelako desadostasun-aktak 1997ko PFEZagatik zehazten zuen likidazioaren aurkako berrezartze-errekurtsoa. Ezespeneren alde, AEAK arrazoi nagusitzat adierazten zuen egia bada ere aplikatu egin zitekeela Ekonomia Itunaren 66.Bi artikulua, eta horrenbestez onartzen zuen egon bazegoela planteatutako gatazka (hala ondorioztatzen da Erabakia bera irakurrita), arau horrek aurreikusten duen egintzen etetea gauzatu behar zela EZAAk eskumen-gatazka planteatzeko idazkiaren berri izan zuen egunetik, eta ez inhibitze-errekerimenduaz geroztik. Horren arabera, etetea eraginkorra izango zen 2003ko abuztuaren 8tik (ikus 11. aurrekaria), baina likidazioa 2003ko uztailaren 15ean egin zenez, gatazkaren planteatzeak etetea

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

gertarazi arren horrek ez zuen ondoriorik izango likidazioan. Zergadunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Ebazpenaren aurka Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusian, eta epaia 2007ko martxoaren 9an eman zen (ikus 20. aurrekaria).

19. 2006ko otsailaren 22an Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak ZZZ/04 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (ikus 16. aurrekaria) ebatzi zuen. Epaian (ZZZ/06 zk.koa) Auzitegi Nagusiak zati batean baietsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren errekurtsoa, EZAARI ez jarduteko egindako eskariaren harira ezarria, bi Administrazioei abstenitu beharra agintzeaz gain, haien desakordioak Arbitraje Batzordearen esku uztera behartu baitzituen, eta horrekin bat, deuseztatu egin zituen 2003ko ekainaren 2ko desadostasun-akta (A02-ZZZZZZZZ) zela-eta 2003ko uztailaren 30etik aurrera egindako jarduketak. EZAAREN izenean eta haren ordezkari gisa, Estatuko Abokatutzak kasazio-errekurtsoa (ZZZZ/06 zk.koa) aurkeztu zuen epaiaren aurka Auzitegi Gorenean, gaur egun Auzitegi horrek errekurtsoa oraindik ebazteko duelarik.

20. 2007ko martxoaren 9an Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak epaia (ZZZ/2007 zk.koa) eman zuen zergadunak Euskadiko AEAREN 2006ko otsailaren 27ko Erabakiaren aurka ezarritako errekurtsoaren gainean. Epaian osorik baietsi zuen zergadunaren errekurtsoa, eta Zuzenbidearen aurkakotzat jo zituen bai errekurritutako EZAAREN erabakia baita erabaki hori oinarritu zuten egintzak eurak ere, ondorioz deuseztaturik geratu zirenak. Epaiak bere egin zituen lehenago aipatutako 2006ko otsailaren 22koaren argudioak (ohartu beharra dago, haatik, oraindik ebazteko dagoela bigarren epai horren aurka Auzitegi Gorenean ezarritako kasazio-errekurtsoa, gorago azaldu bezala).

21. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia betez, EZAAREN Euskadiko Ordezkaritza Bereziko Eskualde-ikuskaritzako buruak erabaki zuen, 2007ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

maiatzaren 21eko Ebazpenez, baja eman zekiola 1997ko ekitaldiko PFEZa zela-eta zergadunari egotzitako likidazioari, _____ eurokoa berau.

22. 2008ko maiatzaren 22an Arbitraje Batzordeko presidenteak, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren (abenduarien 28ko 1760/2007 Errege Dekretuz onartua, eta aurrerantzean EIABE) 16.2 artikuluekin bat etorritik, gatazkaren planteatzea jakinarazi zion EZAARI, azken horri hilabeteko epea emanaz egoki zeritzekeen alegazioak eta frogak zein dokumentuak aurkez eta proposa zituzan.

23. 2008ko ekainaren 20an EZAARI zuzendari nagusia Arbitraje Batzorde honetan agertu eta 6/2008 espedientearen aurkako alegazioak aurkeztu zituen, espedientearen planteatutakoa aurkaratuz, haren iritziz Bizkaiko Foru Aldundiak ez baitzuen gatazka planteatzeko idazkia aurkeztu EIABEren 13.2 artikuluan aurreikusten den eran. Alegazio-idazkian EZAARI zuzendariak, gertaeren xeheki zerrendatu eta bere asmoaren aldeko dokumentazioa aurkezteaz gain, bereziki argudio hauek zerabiltzan gatazka aurkaratzeko:

a) EZAAREN ustez ez dago gatazkarik, EIABEren 13.2 artikuluen arabera beharrezkoa baita, horretarako, idazki arrazoitu baten bidez planteatzea dadin, eta Bizkaiko Foru Ogasunak aurkeztutako dokumentua, aldiz, espedientearen helarazpen-ofizio bat baino ez da, aipatutako artikuluko eskakizunak betetzen ez dituen, beraz. Horretan oinarriturik, gatazka inondik ere ez onartzea dagokiola deritza.

b) Bigarren –gaineratzen du–, EIABEren 9. artikuluen arabera ez da onartu behar oraindik dagoelako ebazteko Estatuko Abokatutzak Auzitegi Gorenean aurkeztutako kasazio-errekurtsoa, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 2006ko otsailaren 22an emandako ZZZ/06 epaiaren aurka ezarria.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

c) Hirugarren, eta argudio hau ere gatazka inola ere ez onartzeko arrazoitzat aurkeztua, epez kanpokotasuna aipatzen du, gatazka 2008ko martxoaren 14an planteatu zela ohartuz. EZA Ak adierazten zuenez, gatazka hilabeteko epean planteatu behar da, EIABEren 13.1 artikuluan aurreikusi bezala; baina espedientea Arbitraje Batzordea eratu aurrean hasia den kasuetan –honexetan, adibidez– ez dago gatazka planteatzeko epea arautzen duen erregimen iragankor bat, eta horrenbestez, uste du (gertaeren azalpen honetan aipatuko ez ditugun argudio ugaritan oinarriturik) 13.1 artikuluko hilabeteko epea zenbatzeko egun egokiena 2008ko urtarrilaren 17a dela, aurreko egunean argitaratu baitzen Estatuko Aldizkari Ofizialean abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretua, Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartu zuena. Hala, hilabeteko epea egun horretan hasita zenbatu beharko litzateke.

d) Laugarren, gatazkarik ez dagoela argudiatzen du adieraziz EA Eko Justizia Auzitegi Nagusiaren ZZZ/2007 epaia, 2007ko martxoaren 9koa, bete egin zela, zeren EZA Aren Euskadiko Ordezkaritza Bereziaren Eskualde-ikuskaritzako buruak emandako ebazpenak deuseztatu egin baitzuen zergadunari 1997ko ekitaldiko PFEZa zela-eta helarazitako likidazioa.

e) Azkenik, eta gatazkaren muinari helduz, idazkiko bosgarren zuzenbidezko oinarritik zazpigarrenera bitartean hainbat argudio adierazten ditu, gertaerekin eta aurkeztutako dokumentazioarekin batera egiaztatuko luketenak 1997an zergadunaren zerga-egoitza lurralde erkidean egon zela, eta ondorioz, EZA Ak zuela PFEZa ordainarazteko eskumena. Hortaz, eskatzen dio Arbitraje Batzorde honi gatazkaren onartezintasuna deklara dezala, edo, subsidiarioki, adieraz dezala 1997ko ekitaldian zergadunak Gaztela eta Leongo hirian izan zuela zerga-egoitza.

24. EZA A-k alegazioak aurkeztu zituela ikusirik, eta espedientearen izapidetzea burutzeko asmoz, Arbitraje Batzordeko presidentek, EIABEren 16.3 artikuluan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

jasotako ahalmenak baliatuz, idazki bat helarazi zien, 2008ko irailaren 22ko datarekin, zegokien Administrazioei eta interesdunari (zergaduna), eskatuz aurkez zezatela EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren ZZZZ/2006 epaiaren aurkako kasazio-errekurtsoaren egoera prozesalari buruzko informazioa. 2008ko urriaren 3an Ogasun eta Finantza Saileko idazkari tekniko nagusiaren bitartez emandako erantzunean, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zuen kasazio-errekurtsoa planteatu egin zela, Aldundiak aurkakotza-idazkia aurkeztu zuela errekurtsorekiko, eta Auzitegi Gorenak 2007ko maiatzaren 22an emandako antolaketa-eginbidea zela medio idazki hori autoei erantsi zitzaiela. Bere aldetik, izen-abizenak zergadunak erantzun-idazki bat bidali zuen, Arbitraje Batzorde honetan 2008ko urriaren 10ean jaso, adieraziz bakarrik zekiela kasazio-errekurtso bat ezarri zela Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren ZZZ/06 zk.ko epaiaren aurka, eta horren berri izan zuela errekurtsoa aipaturik ageri zelako Auzitegi Nagusiaren beraren 2007ko martxoaren 9ko Epaian, orduko hartan bera –zergaduna– izanik alderdi demandatzailea. Baietsi zuen, bestalde, bere 1997ko PFEZaren likidazioa baja emanda geratu zela EZAAREN Eskualdeko ikuskatzaileak, zegokion epaia betez, hala ebatzi zuelako. Azkenik, 2008ko urriaren 16an EZAako zuzendari nagusiak baietsi zuen errekurtsoa ebazkizun zegoela eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurkakotza-idazkia aurkeztu zuela; horrekin bat, Auzitegi Gorenaren 2007ko maiatzaren 22ko antolaketa-eginbidearen fotokopia aurkeztu zuen, ohartaraziz ZZZZ/2006 errekurtsoa bozketa eta epaiaren zain zegoela.

25. Azkenik, 2009ko urtarrilaren 28ko saioan eta EIABEren 16.4 artikularekin bat etorriz, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen espedientea gatazkan zeuden Administrazioei eta interesdunari helaraztea, egoki zeritzeten alegazioak aurkez zitzaten hilabeteko epean. Bai Bizkaiko Foru Aldundiak bai EZAak eta bai zergadunak alegazioak aurkeztu zituzten epearen barruan.

II.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

1. Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 66. artikuluari eta EIABEren 13.ari helduz, Arbitraje Batzorde honek uste du Bizkaiko Foru Aldundiak garaiz eta forma egokian aurkeztu duela gatazka, eta horrenbestez Zuzenbidearen arabera erantzun behar zaiela EZAAsk alegatutako arrazoibideei. Epeari dagokionez, gatazka 2003ko uztailaren 30ean ezarri eta planteatu zen, eta hala egiaztatu du ez bakarrik Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak 2006ko otsailaren 22ko eta 2007ko martxoaren 9ko epaietan, baizik eta Euskadiko AEAk berak ere 2006ko otsailaren 27ko Erabakian (azken horretaz, ohartu beharra dago AEAREN arabera jarduketak eteteko eta abstenitzeko hasiera-data 2003ko abuztuaren 8a zela, EZAAsk Bizkaiko Foru Aldundiaren gatazka planteatzeko idazkia jaso zueneko, alegia). Egia da – EZAAREkin bat etorri – bi epaiak irakurririk nolabaiteko kongruentzia eza ondorioztatzen dela; izan ere, bietan irizten bada ere inhibitzeko errekerimenduak berak gatazka planteazten duela (eta hala izanik jarduketan geldiarazpenak 2003ko apirilaren 8ra atzeratu beharko zen), lehen epaian –kasazio-errekurtsio ebazteko zain berau–, ordea, idazbidez adierazten da jarduketan deuseztatzeak 2003ko uztailaren 30ean hasi beharko zuela. Ad maiorem, irakurtzen badira Estatuko Abokatuaren alegazioak, laburbilduak horiek Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak 2007ko martxoaren 9an emandako epai irmoan (5. or.), ondorioztatzen da Estatuko Abokatuaren iritziz ere gatazka 2003ko uztailaren 30ean planteatu zela, Bizkaiko Foru Aldundiak bere idazkia aurkeztean, hain zuzen. Hau da, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren bi epaik, Euskadiko AEAREN Ebazpen batek eta Estatuko Abokatuaren alegazioek onartzen dute badagoela eskumen-gatazka bat planteaturik, helarazi zaio Arbitraje Batzordeari gatazka horren ardura eta egon da jarduketa administratiboen deuseztatze bat, zehazki EZAAsk egindako likidazioarena.

2. Zalantzarik gabe, EZAA zuzen dago ohartaraztean Arbitraje Batzordea eraginkorki eratu eta haren kideak izendatu aurretik planteatu ziren gatazken kasuan EIABEK ez duela erregimen iragankor bat horrelakoetan nola jardun zehazteko, baina abenduaren 22ko 2/2008 Ebazpenean adierazi genuenez, orduko hartan ere alderdiak berberak zirelarik, “EIABEK arau iragankorrik ez bazuen ere, ez dago

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

arrazoirik adierazitako egunetako edozeinetan koka dadin gatazka planteatzeko epearen hasiera. Aitzitik, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak Erregelamendu honetako epe-sistemak helburu duela Arbitraje Batzordeak bere eginkizunak era eraginkorrean bete ahal izatea. Izan ere, Ekonomia Itunean aurreikusita egonik Arbitraje Batzordera jotzea gatazkak konpontzeko bide gisa, ez dago justifikaziorik baliabide hori iraungi dadin, Batzordea lehenagoko gaiak benetan arduratzeko aukerarik gabe utziz. Iritzi horren alde jokutzen du, gainera, pro actione printzipioak, aurreko Zuzenbidezko Oinarrian aipatu dugunak, hain zuzen. Gogoeta horien ildotik, Arbitraje Batzordeak jarduteko irizpidetzat hartu du onartu egingo dituela izapideetara Batzordea bera eraginkorki eratu aurretik ebazkizun zeuden gatazkak. Organo honen eraketa-eguna 2008ko apirilaren 4a denez gero, gatazka horietako bat da Arbitraje Batzordeak erabakizun daukan hau. Ez dira, izan, gatazka berriak, EIABEn ezarritako hilabeteko epea aplikatzeko modukoak, aspaldi sortuak baizik, kasu batzuetan (honako honetan, adibidez) duela urteetakoak, eta horrelakoei begira planteatzen da orain aukera hau. Edonola ere, aipatutako epea ezin liteke atzeraeraginez aplikatu EIABE argitaratu baino lehenagoko gatazketan segurtasun juridikoari kalte eragin gabe. Hona arte azaldutako arrazoibideak direla medio, bidezkoa da EZAAk alegatutako epez kanpokotasuna ukatzea”. Geure egiten dugu, ezbairik gabe, doktrina hori gatazka honen kasuan.

2009ko martxoaren amaierako alegazio-idazkian EZAAk adierazten zuen ez zegoela ados Arbitraje Batzordearen 2/2008 Ebazpeneko tesiarekin, eta ez zela aintzat hartu Auzitegi Konstituzionalak 2008ko otsailaren 12ko epaian emandako doktrina, berretsia berau –Estatuko Administrazioaren arabera– Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 10eko epaian. Hala ere, bi epaiotako lehenean bai gaia bai prozedura ere guztiz desberdinak dira kasu honetan planteatutakoen aldean; gainera, ez deritzogu zuzena egiten den baieztapen bati, Arbitraje Batzordea eratu aurrean administrazioarekiko auzibidera jotzea beste aukera ez zegoelakoari, hain zuzen. Azkenik, EZAAren jarrera ez dator bat ez Estatuko Abokatuarenarekin, ez AEAREN ebazpenarekin (18. aurrekarian aipatua) ez 19. eta 20. aurrekarietan gogora

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

ekarritako EJAren epaiekin ere; izan ere, kasu guztietan organo administratiboek zein judizialek gatazka planteatu egin dela iritzi dute, Arbitraje Batzordearen egokitasuna zalantzan jarri gabe; areago, lehentasuna aitortzen diote Batzordeari administrazioarekiko auzibidearen aldean. Beraz, ezetzi egin behar dugu hainbat aldiz planteatutako alegazioa.

3. Ez-onartzearen aldeko beste argudio baten arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren idazkiak ez zituen betetzen EIABEren 13. artikuluko baldintzak. Horri dagokionez ere, Arbitraje Batzorde honen erantzunak oinarri ditu erabaki judizialak eta Euskadiko AEAREN doktrina. Gatazka 2003ko uztailaren 30ean planteatu bazen, nekez begiratu zitzaketen ez Foru Aldundiek ez EZAk berak Erregelamenduaren aurreikuspenak, gatazka planteatu zenean ez zegoen-eta delako Erregelamendua. 2003ko uztailaren 30eko idazkiak 30/1992 Legearen oinarritzko xedapenak betetzen ditu, eta Arbitraje Batzordea lege horren mende dago. Bestalde, ohartzekoa da, beste behin, Batzordeak 2/2008 Ebazpenean adierazitako jarrera, erabat aplikagarria baita aztergai dugun kasuan, ez bakarrik objektuaren berberatasunagatik, baita subjektuarenagatik ere. Aipatutako ebazpenean, Arbitraje Batzorde honek honako hau adierazi zuen: “agerikoa bada ere Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko martxoaren 14 idazkiak, zeinaren bidez helarazi baitzizkion Arbitraje Batzordeari Erakunde honek bere eraketaren aurretik planteatutakotzat zeuzkan gatazken espedienteak, ez zituela betetzen Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren (EIABE, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuz onartua) 13.2 artikuluko eskakizunak, gehiegizko formalismoa litzateke gatazka arrazoi horrengatik ez onartzea, EZAk nahi bezala, zeren Erregelamenduaren arau horren arabera idazkiak bete behar dituen eskakizunei argi samar antzematen baitaie Bizkaiko Foru Aldundiak helarazitako espedientearen. Ondorioztapen horren alde jokatzeko du pro actione printzipio antiformalistak, prozedura administratiboaren irizpideetako bat jurisprudentzia-doktrinaren arabera (ikus, hainbaten artetik, Auzitegi Gorenaren 1998ko abenduaren 14ko Epaia –RJ 1998,10208, 1. F.D.– eta 2003ko abenduaren 9koa –RJ 2003,8788, 3. F.D.–)”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

Laburbilduz, Bizkaiko Foru Aldundiaren idazkia ez da, EZAAsk dioenez bestela, gatazka planteatzeko idazki bat stricto sensu, baizik eta, behin Arbitraje Batzordeko kideak izendatuta eta haren Erregelamendu arautzailea onartuta, lehenago planteatutako gatazken zenbait espediente helarazi zizkion idazki bat, zeren artean eraginkorki eratuta egon gabe –esan bezala 2008ko apirilaren 8an egin zen hori– Batzordeak ez baitzuen aukerarik izan delako gatazkak onartu, baloratu eta izapidetzeko. Esan beharra dago 2009ko martxoan aurkeztu zuen azken alegazio-idazkian EZAAsk ez zuela argudio hau baliatu ez-onarpenerako arrazoi gisa, baina beharrezkoa iruditu zaigu, hala ere, argudioa ezestea, aipatuta ageri baitzen prozedurari erantsi zaizkion lehenagoko beste idazki batzuetan.

4. EZAAsk gatazka ez onartzearen alde planteatutako bigarren arrazoiaren ohartarazten da badela auziari lotutako elementu bat ebazkizun dagoena oraindik, Auzitegi Gorenak erabakitzeke baitu, izan ere, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2006ko otsailaren 22ko epaiaren aurkako kasazio-errekurtso bat, Estatuako Abokatuak ezarria EZAAREN izenean eta horren ordezkari gisa. Arrazoibide hori, haatik, ezetsi egin behar da, zeren Auzitegi Gorenak Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai bat (ZZZ/06 zk., 2006ko otsailaren 22koa), honen antzeko kasu bat planteatu zuena, kasatu baitzuen honako hau adieraziz, hitzez hitz eta argiki, zortzigarren zuzenbidezko oinarrian (2008ko uztailaren 10eko epaia, ZZZZ/2006 zk.ko errekurtsioa): “demandan planteatzen diren eskaeren aurrean, gogoratu behar da instantzia-salak ezin izan zuela erabakirik eman eztabaida sortzen duten gaiez; beraz, gai hau ez zegoen ebazkizun Justizia Auzitegietan”. Ebazkizunik ez zegoela eta, Auzitegi Gorenak agindu zuen Arbitraje Batzordeak har zezala eskumen-gatazkaren ardura. Hortaz, gure goi-auzitegiaren doktrina aplikatuz, bidezko da auziaren muinari heltzea.

Bestalde, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren ZZZ/2007 zk.ko epaiak, 2007ko martxoaren 9koak, irmoa bada ere, oinarri du, eta errepikatu egiten du, Auzitegi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

berberak 2006ko otsailaren 22an emandako ZZZ/06 zk.ko epaia, beren-beregi gogoraraziz azken epai horretako doktrinaren kasuan kontuan izan behar zela zer gertatuko zen Auzitegi Gorenean ezarritako kasazio-errekurtsoarekin. Hala ere, bi epaietako lehenak, irmoa izan arren, ez zion heldu gaiaren muinari (non zuen zergadunak zerga-egoitza 1997an), irizten baitzen inhibizio-errekerimenduak, berez, eskumen-gatazka planteazten zuela Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, eta ondorioz, etenarazpena gertarazten zuela, Ekonomia Ituneko 66.Bi artikuluan aurreikusi bezala; horrenbestez, onartu egin zuen zergadunak aurkezturiko errekurtsoa, bai eta deuseztatu ere aipatutako errekerimenduaz geroztik errekurritutako jarduketa guztiak. Hortaz, irmotasun judizialak eragina zuen EZAAk erabilitako prozeduran, baina ez auziaren mamian –ekin ere ez zitzaion egin–, hau da, zergadunaren 1997ko zerga-egoitzaren zehaztapenean. Eta Ekonomia Itunaren arabera, zeregin hori Arbitraje Batzordearen eskumena da behin organo hau eraginkorki eratuz geroztik. Hortaz, EIBAEn 9. artikulua Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 10eko epaiaren arabera interpretatuz gero, kasu honetan ez dago aipatutako artikulua aurreikusten duen elementu bat, aurka jotzeko erabil litekeen ebazkizun bat, alegia.

5. PFEZa dela-eta sortutako gatazkari dagokion zergaldian (1997), indarrean zegoen maiatzaren 13ko 12/1981 Legea, abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bidez emandako idazketarekin. Bada, 12/1981 Legearen Azken Xedapenetako Laugarrenaren arabera, tributu itunduetan egindako aldaketek atzeraeragina dute 1997ko urtarrilaren 1era arte. Ondorio horietarako beharrezkoa da, beste ezer baino lehen, gatazka honen gaia zehaztea. Izan ere, ohartu beharra da egia bada ere oro har EZAAren jarduketa administratiboek zergadunaren “zerga-egoitza” dutela hizpide, zergadunaren bizitokia dela, benetan, jarduketa horietan planteatzen dena. Esandakoa agerian geratzen da ebazpen eta dokumentu guztiek maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak onartutako Ekonomia Ituneko 36. artikulua aipatzen dutelako, baina beti abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak berridatzen zuen bezala; idazketa horren arabera artikulua ez zuen pertsona fisikoen zerga-egoitza arautzen, haien ohiko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

bizilekua baizik, eta Itunak 7. artikuluan hala ezarrita, ohiko bizilekua zen, hain justu, lotura-puntua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako. Halaber, EZAAREN alegazioetan aipatzen zen –horretarako arrazoiak zalantzarriak izan arren– 1963ko Tributuen lege Orokorren 45. artikulua, bi datuak lotzen zituen, pertsona fisikoen ohiko bizilekua jotzen baitzuen haien zerga-egoitzatza.

Horri dagokionez, 36.1 artikuluan 1981eko Itunak hiru gidalerro ematen zituen, hurrenez hurren jarraitzekoak, pertsona fisikoen ohiko bizilekua zehazte aldera:

- a) EAEko lurraldean ematen baldin badituzte PFEZren zergaldiko egun gehien; alde horretatik, ohartarazten da egonaldia zehazteko orduan kontuan hartuko direla kanpoan egindako aldi bateko egonaldiak, eta kontrako frogarik ezean, pertsona fisikoa EAEko lurraldean dagoela joko dela baldin eta bertan badauka bere ohiko bizilekua.
- b) EAEn baldin badu bere interesen gune nagusia; eta horrelakotzat joko da zer lurraldetan lortu duen PFEZrako zerga-oinarriaren zati handiena.
- c) EAEko lurraldean baldin badago PFEZren ondorioetarako aitortu duen azken egoitza.

Bestalde, Itunaren 7. artikuluan ohiko bizilekua aipatzen da lotura-puntu gisa PFEZaren ordainarazterako. Horren arabera, eta 36. artikuluko hurrenez hurreneko irizpideei jarraituz, 1997an zergadunak Bizkaian izan bazuen ohiko bizilekua soilik izango da eskuduna Bizkaiko Foru Aldundia, eta, kontrara, EZAA izango da baldin eta ohiko bizilekua lurralde erkidean izan bazuen.

6. Lehenago esan bezala, 1981eko Itunaren arabera, eta kontrakoa frogatu ezean, pertsona fisikoa EAEko lurraldean dago baldin eta bertan badu bere ohiko bizilekua. Horri dagokionez, badira hainbat froga eta presuntzio egiaztatzen dutenak kasu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

honetako bizilekua Bizkaiko _____ udalerrian zegoela, eta kontuan hartu behar da bi arloetan aplikatzekoak direla Kode Zibilaren 1214. artikulutik 1253.era bitartekoak eta Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen (PZL aurrerantzean) 299. artikulutik 386.era bitartekoak, hala xedatzen baitu 230/1963 Legeak, Tributuen Orokorrak, 115. artikuluan eta ondorengoetan, Legeak berak jasotzen dituen salbuespenekin. Aztergai dugun kasuan, EZAAk ikuskapen-jarduketegi ekin zienean, 2000. urtean, aipatutako legeak indarrean zeuden eta aplikatu beharrekoak ziren. Ohiko etxebizitza Bizkaian zegoen, honako egitate, dokumentu eta adierazpen hauek egiaztatzen duten bezala:

- a) 1997an ezkontegoitza aipatutako herrian zegoen, eta zergaduna ezkontuta egonik, ontzat hartu behar da –iuris tantum– Kode Zibilak 69. artikuluan jasotzen duen bizikidetzaren presuntzioa, EZAAk suntsitu ez duen presuntzio bat, hain justu.
- b) Ezkontidea Ekonomia-jardueren gaineko Zergan erroldaturik zegoen, Bizkaiko Lurralde Historikoan, hortxe gauzatzen zuelarik bere jarduera ekonomikoa (enpresakoa edo profesionala). Egitate hori dokumentuzko frogara publikotzat hartzen da PZLn, baina EZAAk ez du datu hori ere aurkaratu, nahiz eta PZLk berak horretarako aukera eman 320. artikuluan, eta arrazoia da, besterik gabe, Estatuko Administrazioak ez duela kontuan hartu, zergadunaren alegazioetan ageri arren.
- c) Bai erroldatze-agiriak baita zergadunak aurkeztutako beste dokumentu batzuek ere, hala nola alaben matrikulazioa herriko ikastetxe batean, frogatzen dute ohiko etxebizitza foru-lurraldean zeukala. Dokumentu horietako lehena dokumentu publikoa da PZLren 317. artikulua arabera. Alaben matrikulazio-ziurtagirien kasuan, PZLren 326. artikuluan xedatzen denari heldu beharko zaio.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

d) Dokumentu publikoaren izaera du, halaber, Bizkaiko Foru Ogasunak EZAAREN eskariz emandako erantzunak, Ogasunaren iritzia adieraziz Bizkaian kokatzen zuenak zergadunaren 1997ko zerga-egoitza. EZAak ez zuen dokumentu hori ere aurkaratu edo gezurtatu.

e) Zergadunaren alegazioak koherenteak dira ohiko etxebizitza Bizkaiko herrian zeukalakoarekin, adierazten baitu haietan Gaztela eta Leongo hiritik Bizkaiko udalerrira joaten zela, baldin eta lan-betekizunek eragozten ez bazioten. EZAak ez zituen alegazio horiek ere aurkaratu edo gezurtatu. Puntu honi dagokionez, egitate frogatua da 1997ko urriaren 21etik ez zegoela Gaztela eta Leongo hirian, entrenatzaile-postutik bota zutelako, eta, halaber, gatazka kokatu beharreko urte naturalaren gainerakoan badira zenbait egitate zerikusia zutenak haren lanbidearekin (nazioarteko lehiaketak, aurre-denboraldia eta abar), presuntzioak izan arren frogabidetzat onar litezkeenak –nahiz eta legeak horrelakotzat ez jaso–, lotura zehatza eta zuzena baitago egitate frogatuaren eta ondorioztatu nahi den egitatearen artean, arau hauen arabera: 230/1963 Legea, Tributuei buruzko Orokorra (118.2 artikulua), eta PZL (385.2 artikulua).

f) Azkenik, frogen zerrendatze honetan kontuan hartu behar da zergadunak, bere 1997ko zergaldiko aitorten-likidazioan, adierazi zuela zerga-egoitza Bizkaiko udalerrian zeukala. Egia da autolikidazioa ez dela ez egintza administratibo bat ezta dokumentu publiko bat, eta gure aldetik uste dugu ez dela aplikagarria, prozedura-ondorioetarako, 230/1963 Tributuen Lege Orokorren 114. artikulua, ezta, zehazki, lege horrek berak 102. artikuluan jasotzen duen ziurtasun-presuntzioa ere, baina era berean, uste dugu baduela, dokumentu pribatu gisa, PZLren 326. artikuluko froga-indarra.

7. Estatuko Administrazioak aurkeztutako frogak ez dira nahikoa zergadunak ohiko etxebizitza Bizkaiko udalerrian zeukalako presuntzioa suntsitzeko. Izan ere, EZAA

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

honako datu hauetan baino ez da oinarritzen ohiko bizilekua Gaztela eta Leongo hirian zegoela baieستeko:

a) 1996ko azaroaren 12an _____ kirol-klubarekin sinatutako lan-kontratua, 1998ko ekainaren 30era artekoa, 1997ko urriaren 21ean interesduna entrenatzaile-postutik egotzi bazuten ere. EZAAk ez duenez kontratua erantsi espedientean, ezinezkoa da jakitea zer lan-eginkizun zegozkion zergadunari, zehazki asteko ordutegia, opor-egunak, baimenak eta beste zenbait elementu, beharrezkoak Gaztela eta Leongo hiriko egonaldia zehaztu nahi bada; bestela esanda, ez dago zehazterik Bizkaiko ohiko bizilekutik kanpo izandako egonaldiak, eta batez ere, kontratuan ageri den helbidea, EZAAk Gaztela eta Leongo hirian kokatu arren ezin egiazta daitekeena. Edonola ere, kontratuko helbidea zantzu sendoa izango litzateke, baina ez, ordea, froga gezurtaezin edo aurre-eratu bat ohiko bizilekua zehazteko orduan, eta, noski, ez du baliorik ohiko etxebizitza Gaztela eta Leongo hirian zegoela ziurtatzeko.

b) Espedienteko dokumentu nagusiak irudi-eskubideak lagatzeko kontratuak dira, alderdi hauen artekoak: batetik, 1 erakunde enpresa, zergaduna eta _____ (kirol-kluba), eta bestetik 2 erakundea eta _____ (kirol-kluba). Kontratuotan, enpresak irudi-eskubideen lagapenaren hartzaileak dira, eta enpresetako lehenenaren kasuan zergadunaren emazteak parte hartzen du kontratuaren sinatzean bazkide fundatzaile gisa, bizilekua Bizkaian duela adieraziz. Soilik lehen kontratuan, 1996ko abenduaren 20koa berau, ageri da zergadunaren bizileku gisa Gaztela eta Leongo hiriko _____ helbidea. Bigarren kontratuan, 1997ko abuztuaren 20 egindakoan, ez da zergadunaren bizilekurik aipatzen, horren arrazoia izanik ez zuela parte hartzen kontratu bidezko harreman hartan; hala ere, EZAAk ondorioztatu zuen kontratu horretatik (irudi-eskubideak 1997/98 denboraldian lagatzekoa) zergadunak kirol-klubari lotuta jarraitzeko asmo argia zuela. Zantzu horrek badu nolabaiteko garrantzia, bizileku bat zehaztu baita, baina soilik ondorio juridiko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak

pribatueterako (izan ere, merkataritza-legeriak ez du kontratuetan zerga-egoitza adierazteko agintzen), eta ez zerga-ondorioetarako, nahiz eta frogatuta geratu egon zela kontratuzko harreman bat, zeinaren ondorioz (eta bereziki entrenatzaile gisa zeukan lan-harremanagatik ere, horrek lekuan fisikoki egotera behartzen baitzuen) gerta baitzitekeen zergadunak Gaztela eta Leongo hirian egon behar izatea, baina ez dakigu zenbat iraun zuen egonaldiak, beharrezkoa datu hori Bizkaitik kanpo eman zuen egun kopurua kalkulatzeko.

c) Jarduketan hasieraren jakinarazpena jaso zuenean, 2002ko ekainaren 7an Bizkaiko udalerrian, emazteak adierazi zien zerga-agenteei halaberrez zegoela bizilekuan, denbora gehienez Madrilen bizi ziren eta. Ez dugu EZAAren alegazio hau ulertzen, bi arrazoiengatik: lehenik, eztabaidagai dagoelako non bizi zen zergaduna 1997an, eta ez 2002an, eta bigarren, jakinarazpen hartan (alegazioetako 2 zk.ko dokumentuan erreproduzitua) ez delako aipatzen zergadunaren emazteak EZAAk haren ahoan jartzen duena esan zuenik; beraz, pentsatzekoa da ahozko adierazpen bat izan zela, eta dokumentu bidez frogatu gabea.

d) Dirudenez, EZAAk berebiziko garrantzia ematen dio egitateen jasotze-20 eginbideari, 2002ko ekainaren 28koa berau. Eta izan ere, horren arabera (alegazioetako 3 zk.ko dokumentua) “zergadunak adierazi duenez, 1997ko ekitaldiko urri edo azarora bitartean bere bizileku partikularra Gaztela eta Leongo hirian izan zuen, baina nukleo familiarra (emaztea eta seme-alabak), berriz, Bizkaian bizi izan dira 1997ko ekitaldi honetan”. Zergadunak, bere aldetik, ez du ukatu adierazpen hori, berak sinatua gainera, baina –gaineratzen du– Ikuskaritzara bertaratu zen lehenengo aldian egin zuelarik ez zuen pentsatu garrantzia zeukanik; bestalde, bere alegazioetan adierazi zuen urri aldera Gaztela eta Leongo hiria utzi zuela, eta gainera, lan-betebeharririk ez zeukanean (oporretako hilak, kirol-jarduerarik gabekoaldiak, jaiegunak, lehiaketaren etenak Espainiako selekzioaren deialdiengatik eta abar) familia-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

bizilekura joaten zela, Gaztela eta Leongo hiritik Bizkaiko herriraino dagoen distantzia hiru bat orduz egin baitaiteke autoz. Hala ere, adierazpenak eta alegazioak kenduta ez du frogarik aurkezten egiaztatzeko zenbat egun egon zen familiarekin eta zenbat Gaztela eta Leongo hirian bere jarduerako eginbeharrak betetzen. Dokumentu publiko horrek –terminoaren adiera prozesalean– egiaztatzen du, froga-ondorioetarako, nukleo familiarra Bizkaian zegoela, eta, hortaz, EZAAk hainbesteko garrantzia ematen badio adierazpenari osorik hartu behar du aintzat, nahi duena bakarrik hartu eta besteari erreparatu gabe, alegia. Ildo horretatik, Arbitraje Batzorde honek uste du, zergadunaren testigantza jasotzen duen dokumentuzko frogan oinarriturik, zergadunaren ohiko etxebizitza ez zela lurralde erkidera aldatu, eta zergadunak aitortzen duela –egun kopurua zehaztu gabe bada ere– 1997ko zenbait hilabetez bizileku bat izan zuela Gaztela eta Leongo hirian, baina ez duela inoiz adierazi bertan emandako denborak egonaldi jarraitu bat osatu zuenik eta horregatik tokiz aldatu zuenik bere ohiko bizilekua; aitzitik, azken horretara itzultzen zen lan-eginkizunek Gaztela eta Leongo hirian fisikoki egonarazten ez zuten guztietan.

e) Bestalde, aipatzen du EZAAk –baita espedienteari erantsi ere– Gaztela eta Leongo Juntako Laneko Lurralde Bulegoko idazki bat, zehazki Bitartekaritza, Arbitraje eta Adiskidetze Atalak emana (Gaztela eta Leongo hiriko Lurralde Ordezkaritza), zeinean jasota ageri baita kirol-klubak eta zergadunak adostutako akordio bat, bidegabetzat jotzen duena urriaren 21eko kaleratzea. Bada, idazkian Bizkaikoa ageri da zergadunaren bizileku gisa, datuak garrantzi handirik ez badu ere, idazkia 1997ko azaroaren 11koa izateagatik; era berean, Bizkaiko bizilekua agertzen da klubak kitapena jakinarazteko helarazi zion idazki batean, 1997ko urriaren 31koa berau (EZAAren alegazioei erantsitako espedientea, 25. orria). Itxuraz garrantzirik izan ez arren (ohartzekoa da, ordea, EZAAk kontratuei ematen dien garrantzia haietan Gaztela eta Leongo hiriko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

bizileku bat aipatzen denean), datua azpimarragarria da, egiaztatzen baitu zergadunaren ohiko bizilekua Bizkaian zegoela.

f) Aipatzen du EZAk, orobat, 2003ko martxoaren 3ra arte zergadunak, haren emazteak edo haren ordezkariak ez zutela EZAren eskumen eza alegatu bizilekua lurralde erkidean ez egoteagatik, honako hau ohartuz: “ulertzekoa denez, adierazpen hori berez egin beharko zuten Estatuko Zerga Agentziaren lehen errekerimendua (2002ko ekainaren 26an egina) jaso orduko; hala, datua beranduago alegatu izanak agerian uzten du estrategia bat landu zela ikuskapenari itzuri egiteko”. Letra etzanez nabarmendutako iritzi subjektiboa albo batera utzirik, egia da Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak adierazten duela 2007ko martxoaren 9ko Epaiari, Zuzenbideko Lehen Oinarrian, 2002ko ekainaren 28ko agerraldian eta uztailaren 9 eta 18koetan zergadunak EZAren eskumen eza alegatu zuela, zerga-egoitza Bizkaian zeukala argudiatuz. Hor, aipatutako Epaiaren akats bat edo egitezko oker bat dugu, eta arrazoi du EZAk, zeren aipatutako egitateen jasotze-eginbideetan ez baitzen EZAren eskumen eza alegatu, baina hala ere, epai irmo batek frogatutako egitateak dira. Edonola ere, oharpen honen helburua da zehaztapen bat egitea EZAren baiespenari, zerga-egoitza zein den jakiteko ez duelako batere ardurarik estrategiarik izan ote zen edo ez ikuskapen-jarduketak saihesteko asmoz, eta hori, gainera, gatazkaren alderdietako baten iritzia baino ez da. Horrez gain ohartzekoa da 2003. urtean jaso zuela zergadunak, hain zuzen ere, bere zerga-egoera erregularizatzeko proposamena.

8. Bai Bizkaiko Foru Aldundiak baita zergadunak azken alegazioetan ere ideia berberera jotzen dute: “bizilekua etenka baina sistematikoki edukitzea” Bizkaian. Esapidea, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak 2002ko martxoaren 8ko Epaiari erabilia eta Aldundiak zein zergadunak berariaz gogorarazia, ezin da –haren oinarriez ari gara– sic et simpliciter ekarri auzi honetara, egitatezko kasua desberdina baitzen; ordukoan, Aragoira bidalitako funtzionario batek, Zerga Administrazioaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

ikuspegitik, Erkidego hartan zeukan bizilekua, eta hala omen zen funtzionarioek bizilekua tokian toki edukitzeko duten betebeharragatik, Zerga Administrazioak aurkeztutako zantzu bakarra huraxe. Bestalde, alegazio horietan, hainbat oharpen egiteaz gain nukleo familiarra (emaztea eta seme-alabak) Bizkaiko udalerrian bizi zelakoaz, frogak ere aurkeztu zituzten, hala nola emaztearen EJZko alta-agiria, seme-alaben matrikulazioa udalerriko ikastetxe batean, erroldatze-ziurtagiria eta abar, denak aintzat hartzeko modukoak, zeren 1981eko Itunaren arabera (36.Bat.Lehena artikulua), eta aurkako frogarik ezean, pertsona fisikoak Euskadiko lurraldean bizi baitira bertan baldin badute ohiko bizilekua, juridikoki lehenago aztertu dugun gai bat hori, zehazki Ebazpen honetako zazpigarren Zuzenbidezko Oinarrian.

9. Zergadunak ohiko bizilekua Bizkaiko udalerrian izatetik ondorioztatzen den presuntzioa suntsiturik geratuko litzateke baldin eta espedientean dauden frogek egiaztatuko balute zergadunak bere ohiko bizilekua dagoen tokitik kanpo eman zituela zergaldiko egun gehienak.

Alde horretatik, EZAk oinarritzat darabiltzan egiaztapen-jarduketak zergadunaren lantoki zen kirol-klubarekiko egin ziren, ez interesdunarekiko berarekiko, eta gainera, EZAk ez ditu klubarekiko jarduketa horiek espediente administratiboan jaso, "Informazio Garrantzitsuko Fitxa" delakoa bakarrik baizik. Aipatutako jarduketetatik, Agentziak berebiziko garrantzia ematen dio elementu honi: irudi-eskubideen lagapen-kontratuan ageri den bizilekua (ez du entrenatzaile lan-kontratuaren dokumentuzko frogarik aurkezten), beste dokumentu batzuetan jasotzen den berbera, kirol-klubak emandako atxikipenen ziurtagirian izan ezik, hor bakarrik ageri delarik Gaztela eta Leongo hiria.

Aurreko Zuzenbidezko Oinarrietan azaldutakoari helduz, zantzu horiek ez dira Itunaren 36.1 artikuluko presuntzioa suntsitzeko adina, ezta 2002ko ekainaren 28ko egitateen jasotze-eginbidean jasotzen den adierazpena lotuko balitzaie ere, nahiz eta hor zergadunak adierazi 1997aren zati batez Gaztela eta Leongo hirian izan zuela

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2008	R6/2009	2009/04/03	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>PFEZ. Bestelako gaiak: gatazkaren onargarritasuna. Arbitraje Batzordeko eratu aurreko gatazkak. Justizia Auzitegiek ebazteko zain dauden auziak</i>

bizileku partikularra. Froga horietatik (batzuk aurkeztu gabeak ere, entrenatzaile lan-kontratua kasu) soilik ondoriozta daiteke zergadunak pisu bat zeukala hiri hartan eta bertan bizi izan zela zergaldiaren tarte zehaztu gabe batez.

Bestela esanda, EZAAk froga sendoagoak aurkeztu beharko zituzkeen indarrrik gabe utzi ahal izateko Ituneko presuntzioa, ondorioztatua berau zergadunaren ohiko etxebizitzaren kokapenetik eta Arbitraje Batzorde honek egiaztatutzat jotzen duena, eta froga hobe horiek baliatuz bermatu beharko zukeen zergadunak zergaldiko egun gehienak lurralde erkidean eman zituelako argudioa, bertan bizi zela frogatuz gero hori nahikoa lotura-puntua izango baitzatekeen Agentziak beretzat eskuratu zezan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga exijitzeko eskumena.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1997ko zergaldian izen-abizenak(r)en ohiko bizilekua Bizkaiko Lurralde Historikoan zegoen, eta horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiak du zergaldi horretako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordainarazteko eskumena.